

Kultura

Lauka Teatroa konpainiaren 'Amodioaren ziega' antzezlanak Zubi lehiaketa irabazi du > 12



JAIAK!

ELORRIO
-
IZURTZA



Erdi Aroko azterna gehiago aurkitu dituzte Legañon

Berrizko Legaño auzoan, abuztuan egin dituzten indusketetan, Erdi Aroko hilerriaren aztarnen artean hamasei hilobi aurkitu dituzte > 3

Gazte saharai bik eritasunak osatzeko tratamendua jaso dute Euskal Herrian > 8

Rio de Oro ekimenaren bidez, Tindufeko (Aljeria) kanpalekuetan bizi diren eta urritasunen bat duten hamar gazte uda pasatzera etorri dira Durangaldera. Izurtzako aterpetxean ostatu hartu dutenen artean, gazte bik tratamendu medikoa jaso dute. Raguiak epilepsia arazoak ditu, eta, ekimenaren arduradunek diotenez, tratamenduak mesede egin dio. Mohammedek, aldiz, bihotzeko arazoak ditu, eta ez da taldeagaz Tinduferra itzuli, Gurutzeta ospitalean ebakuntza egin diotelako.



EGYRANGA S.L.
PINU-EGUR SALEROSKETA
COMPRA-VENTA DE MADERA DE PINO

ZUBIALDE, S. A.
-ren hornitzaileak

Durango > 4

'Matadero' auzoko bizilagunek kezka agertu dute etxebizitza zaharren egoera dela-eta

Abadiño > 2

Oinezkoei lehentasuna emateko lanak hasiko dituzte Zelaletan

Otxandio > 9

Arkeologia azterketak egiten dabilta Otxandioko plazan

Garai > 9

Zabalduta dituzte Garaikoa landetxea eta Aboiz hotela

Ander Lejarazu Marina
Tel.: 616 650 284

Herririk herri

Oinezkoei lehentasuna emateko lanei ekingo diete Zelaietan

Auzoa gutxinaka oinezkoentzat erosoago bilakatzeko helburuagaz dihardute



Txanporta plazatik igarotzen den ibilgailu kopurua gutxitzea da lanen helburuetako bat.

ABADIÑO Itsaso Esteban Astelehenetik aurrera ibilgailuek ez dute San Trokaz plazara sartzetik edukiko. Oinezkoen lehentasunezko gunea izango da, beraz, datorren astetik aurrera, eskola, pilotalekua, eliza eta udaltxea dauden Zelaia auzoko inguru hori. Astelehenetik aurrera bertako bizilagunek bakarrik izango dute San Trokaz plazaren ingurura autoz sartzeko baime. Gainerako herritarrek trinketaren eta probalekuaren ondoko aparkalekuan utzi beharko dute ibilgailua.

Gobernu taldeak jakinarazi duenez, Zelaietako hirigintza planaren barruan hartuko duten lehenengo neurria da aipaturikoa. Gobernu taldeak azpimarratu duenez, azken urteetan asko gehitu da San Trokaz inguru horretan autoen joan-etorri kopurua. Udalak adierazi du neurri horregaz gune horretako herritarren lasaitasuna eta bizikaltatea hobetu gura duela.

Bestalde, 2013ko udaberrian hirigintzari lotuta auzoan garatu zuten parte-hartze prozesuan hartutako erabakiak gauzatzen joateko asmoa agertu du udalak.

Hirigintzari buruzko parte-hartze prozesuko ekarpenak oinarri hartuta garatuko dituzte lanak

Udalak iragarri du Iturritxo kalea Dendarikoaraino luzatzeko lanak hasiko dituztela laster

Datozen asteetan, helburu horregaz beste obra bat abiaraziko duela ere jakinarazi du Abadiño-ko Udalak. Hain zuzen, Iturritxo kalea Dendarikoaraino luzatze-

ko lanak egingo dituzte, Ferialeku plazara eta Dendarikoara doazen ibilgailuek Txanporta plaza zeharkatu behar ez dezaten. Obra hori egin ahal izateko, Iturritxo kalearen amaierako ortuen jabeekin akordioa lotu du udalak, eta 135.000 euro bideratuko ditu lanok finantzatzera.

Lanen bigarren fasean, Txanportako biribilgunea kentzea eta gune horretan ere autoen sarbidea galaraztea helburu izango duten lanak egingo dituztela aurreratu du udal gobernuak.

Auzoan oinezkoei lehentasuna emateko hainbat neurri zehaztu zituzten auzoko espazio publikoaren berrantolaketakarako 2013an garatu zuten parte-hartze prozesuan. Tartean, ikasturte honetan egingo dituztenak. Herritarren adostasunik handiena lortu zuten hogeitau proiektuak aukeratu zituzten, eta, esate baterako, Txanporta plazaren izaera berreskuratzea zen horietako bat.

Euskara ikasleentzako diru-laguntza deialdia

Irailaren 1etik 30era aurkeztu ahalko dira eskariak

ABADIÑO I.E.

Irailaren jasoko dituzte euskara ikasleen diru-laguntza eskariak udalean. Errota kultur etxean zein Udal Mediatekan aurkeztu ahalko dituzte diru-laguntza jasotzeko euren eskaerak euskara ikastera joaten diren abadiñarrek. 2013-2014 ikasturteari dagozkion eskariak dira hil honetan herritarrek aurkeztu ahalko dituztenak. Eskaria egiteko, honako dokumentu hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak: Naren fotokopia, kontu zenbakia, ikastaroko matrikula ordaindu izanaren agiria eta euskaltegiaren ziurtagiria.

Abadiñarrak euskara eskolara joatea bultzatzeko asmoz eskaintzen du Abadiño-ko Udalak diru-laguntza hau. Diru-laguntza arautzen duen udal ordenantzen arabera, herrian erroldatuta egon behar du eskatzaileak, eta %80ko asistentzia frogatu behar du gutxienez, diru-laguntza jasotzeko eskubidea izateko.

Abadiño-ko Udaleko gobernu taldeak azaldu duenez, iaz 49 herritar izan ziren euskara ikasleei bideraturiko diru-laguntza hau jaso zutenak. Guztira, iaz 8.000 euro bideratu zituen Abadiño-ko Udalak euskara ikasleei laguntzera.

Hondarribira egun-pasa joateko izen-ematea hasi dute

ATXONDO Joseba Derteano

Anbotoko Dama jubilatuen elkarrekin dagoeneko prestatu du oporretatik bueltako lehenengo ekintza; irailaren 27an Hondarribira (Gipuzkoa) egun-pasa antolatu dute. Egun-pasa horretan parte hartu ahal izateko, irailaren 20a baino lehen eman behar da izena jubilatuen etxean. Bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek 30 euro.

Egun-pasa horretan Hondarribiko eraikin esanguratsuenak eta historikoenak bisitatuko dituzte: Guadalupeko santutegia, Alde Zaharra eta La Marina arrantzaleen auzunea, besteak beste. Guadalupeko santutegia XVI. mendean eraiki zuten; historian hainbat eraberritze lan jasan ditu, horietako azkena XIX. mendean.

Txomin Renteriak irabazi du idi proba txapelketa

MALLABIA Jone Guenetxea

XXVI. Mallabiko Idi Proba Txapelketako lehen saria Txomin Renteriak irabazi du, Andra Mari jaietako egitarauari amaiera emanez. Bakiotarrak 1.600 euro, garaikurra eta manta eramantzen dituen etxera, 34 unte osatu eta gero.

Bakiotarrak 1.600 euro, garaikurra eta manta eramantzen dituen etxera 34 unte osatu eta gero

Goietan izan da bigarren, 33 unte eta hiru laurdenagaz. Landazabal-Laukiz (32 unte), Soarte-Elgoibar (31), Biorenabarri-Laukiz (30), Birtxinaga-Bakio (24), Retege-Oiartzun (22 eta laurden bat), Akuleti-Bermeo (16 eta laurden bat) eta Illarreta-Renteria izan dira sailkapenean hurrengoak.

Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2014ko abuztuaren 29a,
12. urtea - 555. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea Arrinda.

Administrazio burua:

Itziar Belar Zubizarreta.

Administrazioa:

Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.**Zuzentzailea:**

Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Argazkilariak: Kepa Aginako, Zalua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 11.500 ale



Abuztu osoan jardun dute hilerriaren arrasto gehiago jasotzen.

“Oso ondo” kontserbatutako 16 hilobi topatu dituzte Legañon

Erdi Aroko kanposantuaren eremu handiago bat azaleratu dute indusketetan

BERRIZ Amaia Ugalde Abuztuagaz batera amaitu dituzte Legañon aurtengo indusketa lanak. Iaz topatutako aztarnek bidegorriaren beste aldera eroan dituzte arkeologoak, eta Erdi Aroko hilerriaren beste zati bat azaleratu dute, 100 metro karratukoa. Bertan hamasei hilobi topatu dituzte, eta hilerri zaharra ekialdean non amaitzen zen ere aurkitu dute. Pasa den barikuan eta gaur arkeologoek bisita gidatuak egin dituzte 16:00etan, bertan topatutakoaren berri emateko.

Lanak tapatu aurretik, indusketen lantaldea azken ukituak ematen ibili da asteon. Roman Rodrigezez arkeologoa da taldeko arduraduna, eta pozik dago aurkitutakoagaz: “Kanposantua

zelan sortu zuten ikusi dezakegu, nahiz eta gorpu arrastorik ez izan”. Urteotan lursaila ia ukitu barik egon denez, topatutakoa “oso ondo kontserbatuta” dagoela nabarmendu du.

Beste hilobi mota batzuk Aurkitutako hilobiak IX. eta XII. mendeen artekoak dira, eta ez dute kutzarik; gorpuen ingurua harriz definitzen zuten, eta gorpuak tapatzeko harri handiak erabiltzen zituzten, Oiztik ekarritakoak. Momoitioko eta Andikoako aztarnetan ere antzeko hilobiak topatu dituzte. Legañon, aurten, beste mota bateko hiru hilobi ere aurkitu dituzte, bi piezakoak: “Oizko harri handiaz gainera, Berrizko beste harri batzuk ere erabili zituzten gorpuak tapatzeko. Harri handia txikiegi geratzen zitzaielako izan daiteke, edo auskalo”.

Burua mendebaldera begira lurperatzen zituzten gorpuak, eta harriek buru aldean sargune bat zuten, suagaz egindako errituentzako ziurrenik: “Momoitioko hilobiek ere antzekoak

dituzte, eta han ikatz arrastoak topatu zituzten”. Rodrigezez gogoratu duenez, “suak bizitzaren zentzua izan zuen kristautasunaren aurreko kulturaren”.

Berriztar bat boluntario Aurten indusketa lanetan astebete boluntario ibiltzeko aukera eduki dute berriztarrek, eta Andikoako auzokide bat animatu egin da. “Polito ibili gara, eta uste dut azkenean berak uste baino gehiago ikasi duela; lurra atera eta ingurua garbitzeaz gainera, topatutako guztia erregistratzen dugu, eta horrenbeste ezagutzen ez den arkeologoen lana ere eza-gutu du”, esan du Rodrigezez.

Hemendik aurrerakoa Datorren urtean indusketekin jarraitu ala ez baloratuko dute orain: “Ondo pentsatu beharko dugu; kontua ez da hilobiak ateratzeko ateratzea”. 2011n Aldundiaren laguntzagaz hasi ziren lanak, eta 2013an eta 2014an udalak ordaindu ditu. Lanekin jarraitu ezean, ingurua zelan egokitu pentsatu beharko dute.

**Roman Rodrigezez**

ARKEOLOGOA

esparru handiago bat aztertu ahalko balitz, topatuko litza-teke”.

Berrizko Andikoan, Garai-ko Momoition eta Elorrioko Argiñetan Legañoko aztarnen antzekoak topatu dituzte, baina Legañokoa berezia dela nabarmendu du Roman Rodrigezez: “Kokapena ez da batere ohikoa”. Normalean, eguzkiaren argitara kokatu-

“Legañoko aztarnen kokapena ez da batere ohikoa”

ta egiten zituzten horrelako eraikuntzak: “Balkoien modukoak dira besteak, nekazaritzan jarduteko lursail onak, eta Legañokoa, berriz, gerizpetan dago, oso leku desberdinean”.

Errogatiba Eguna ospatuko dute gaur, Urkiolan

Eguerdiko 12:00etan meza edukiko dute Urkiolan

MAÑARIA Markel Onaindia Mañariarrek Errogatiba Eguna ospatuko dute gaur, antzinako tradizioari jarraituta. Antza denez, baserritarrek Urkiolako santutegira joaten ziren gaurko egunez, santuari uzta ona ekar zezala eskatzera. Gero, bertan egun-pasa egiteko aprobetxatzen zuten. Ohitura hori oraindik ere mantentzen da, eta gaur ere hain-

bat izango dira Urkiolara joango diren mañariarrak.

Eguerdiko 12:00etan meza edukiko dute, egunari hasiera emateko. Elizkizunaren ostean, herriko dantzarien txanda etorriko da, herrikideen aurrean dantza saioa eskaintzeko. Gero, jaia amaitzeko, Mañarira bajatuko dira. Bertan, bazkarian batuko dira, San Joanen.

Ostean, herriko dantzarien txanda etorriko da, herrikideen aurrean dantza saioa eskaintzeko

Liburutegia, goizez Bestalde, liburutegiak udako ordutegia edukiko du irailaren 15era arte. Beraz, goizez bakarrik egongo da zabalik, 10:30etik 14:30era bitartean. Ekainaren 23an hasi ziren ordutegi horregaz.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

‘Mataderoa’: Durangoko auzo zaharkituenetakoa berrizteko ordua dela uste dute auzotarrek

Aramotz auzuneko biztanleek kezka agertu dute etxeen egoeratik



Aramotz auzunean 50 urtetik gorako etxeak daude.

DURANGO Markel Onaindia 1940ko hamarkadan Durangaldean piztutako industrializazioaren eraginez, Durangok hazkunde demografiko handia eduki zuen 1980ko hamarkadara arte. 50eko urteetan 128 etxebizitza eraiki zituzten herriaren mendebaldean, gaur egun Aramotz izena duen auzunean. Urte gutxiren buruan hiltegia zabaldu zuten bertan, eta, horregatik, *Mataderoa* izenagaz ezagutu izan da auzoa herritarren artean. Urteotan aldaketak izan dituen arren, Durangoko auzo zaharkituenetakoa da, eta aurreko mendearen erdialdean altxatutako etxeak berrizteko ordua dela uste dute auzokideek.

Herria auzo elkartekoek azaldu dutenez, auzotarren kezka uda aurretik hasi zen forma hartzen. Elkartera jo zuten batzuek, etxeen egoera “larri eta penagarriak” arduratuta. Elkarreak batzarrera deitu zituen atariz atari-jabeen bi heren agertu ziren- eta, ondoren, atarietako ordezkari guztiak batu ziren iri-

tziak trukatzeko. Hauek identifikatutako beharrian orokorrak: fatxadak konponduta etxeak babestea eta saneamendu sareak berriztea. Batzuek igogailuak ezartzea ere proposatu zuten.

Baina obra horien kostu ekonomikoak arduratzen ditu, eta horregatik jo zuten udalera. El-

karteko kide batzuek eta etxeen jabe batzuek batzorde bat osatu zuten, eta udal arduradunekin batzartu ziren. Bi gauza adierazi zizkieten: diru-laguntzak garrantzizkoak izango direla, eta, ildo horretan, obraren hasierako azterketa udalak bere gain har dezala. Txema Bilbao



Makinak, asteon, hiltegia botatzeko beharretan.

da batzordeko kideetako bat: “Udalak San Faustorako proiektu bat egin zuela ikusi genuen. Proiektu on bat egin gura dugu, zer behar den, eta zer egin ahal dugun ikusi”. Udalak bestelako “konpromiso” bat hartu behar duela uste du Bilbao: “Urbanizazioa ere badago, eta udalak zer edo zer egin behar du”. Etxeen atzeko errekarren egoera txarra ipini du adibide.

Batzarra “oso ondo” joan zela dio Bilbao. Administrazioetatik laguntzak lortzeko aukera egon litekeela azaldu diete. Gainera, udal arkitektoak hasierako azterketa aurten bertan egitea posible dela esan die.

Hiltegia bota dute

Azken urteetan zabaltzen eta itxura berria hartzen joan da Aramotz. Errotaritxuena auzoa jaio da alboan, eta San Roke hedatu egin da. 2012an hiltegia itxi zuten, uztailearen amaieran botatzen hasi ziren, eta asteon azken lanak egiten aritu dira.

Hiltegiaren lekuan geratuko den espazio librean aparkaleku bat egongo dela aurreratu du udalak. Auzotarren aspaldiko eskaera bat bertan gizarte etxe bat eraikitzea da, baina oraindik ez dago horretarako eperik, udalak eraikitze asmoa eduki arren. Krisia tarteko, baliteke denboran atzeratzea. Etxe zaharrak berritzen diren ere laguntzen eta auzotarren sarreraren araberakoa izango da.

Urki-Hegoalde saihebidetako bigarren fasea amaitu da

DURANGO M.O.

Gasteizko bidetik Elorriorantz trafikoa bideratzeko saihebidetako bigarren fasea amaitu da. Urki-Hegoalde saihebidetako, edo Durangoko kanpoko eraztuna deritzonak, trafiko hori herri barnetik ateratzea dauka helburu. Trafikoa herriko hegoaldetik joango da; adibidez, Larrasoloeta eta Juan Itziar auzoetakoek igarriko dute trafiko jaitziera. Udalak 2011n hasi zuen proiektua, eta lau fasetan banatu zuen. Orain, bigarren faseko obrak amaitu dituzte.

Udalak iazko abuztuan adjudikatu zion lana Lasuen enpresari, eta urtebeteko epea zeukan amaitzeko. Milioi bat euroko aurrekontua eduki du obrak, lehenengo faseak lez. Beraz, beste fase bi geratuko dira proiektu osoa amaitzeko.

Gerediaga eta Plateruena diruz lagundu ditu udalak

DURANGO M.O.

Uztail amaieran izandako udalbatzarrean elkarte bi diruz laguntzea erabaki zuten: Gerediaga eta Plateruena. Gerediaga Elkarrekin publikoki ohartarazi zuen aurreikuspen ekonomiko larria daukala, eta laguntza handiago eskatu zien erakundeei, Eusko Jaurlaritzari batez ere. Durangoko Udaleko zinegotziek aho batez onartu zuten 15.000 euro gehiago ematea, orain arteko 30.000 euroei gehituta.

Bestalde, Plateruena Kafe Antzokiari ere 10.000 euro eman dizkiote, lankidetzat-hitzarmen kontzeptuan. PPrentz abstentzioa kenduta, gainerako alderdi guztiek egin zuten proposamenaren alde. Plateruena duela hamar urte jaio zeneko obraren zorra dauka oraindik.

m o m t x
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006

Bulegorako ziguilak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

BODEGUILLA


TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85



Konprometituta



aecc
*Contra el Cáncer
Minbiziaren Aurka*



Zure erosketarekin,
saldutako pakete
bakoitzeko, 5
zentimo zuzenduko
ditugu (AECC)

Iurretarek eurentzat gordetako aparkalekuak izango dituzte

Urrixena jaiaren ostean (urriak 12) berrantolatuko dituzte aparkalekuak



Besteak beste, Tellituko aparkalekua gordeko dute iurretarrantzat.

IURRETA Amaia Ugalde
Aparkalekuak beste modu batera antolatzeke ordenantza onartu zuten behin-behinean uztaileko osoko bilkuran. Herrigunean aparkatzea ez da erraza; mugikortasun azterketa batean ikusi dutenez, jende asko ibiltzen da bueltaka leku bila, iurretarrak

tartean. Tellituko aparkalekua, adibidez, beti egoten da beteta, eta, azterketaren arabera, hiru autotik bat ez da Iurretakoa izaten. Iurretarek lehentasuna emateko, herritarrentzat gordetako aparkalekuak atonduko dituzte: Tellituko aparkalekua, eta Zubiaurre eta Bidebarrietako

plaza batzuk. Herritarrek txartel bat atera beharko dute.

Bestetik, autoa gehienez ordu eta erdiz uzteko 45 leku atonduko dituzte. Doakoa izango den parkimetro batez, Askondon eta Bidebarrietan egongo dira plaza horiek. Libreak izaten jarraituko dute Maspeko apar-

kalekuek, Paduretako aparkalekuak eta Ibarretxeakoak.

Askondotik Bidebarrietarako bidea trafikoari ixtea ere aurreikusi dute. Alegazio epean dago testua; irailean udalbatzatik pasako da, eta Urrixenaren ostean hasi gura dituzte lanak.

Foroetako ekarpenak

Maiatzean egindako foroetan udaletik proposatutako aldaketak eztabaidatu zituzten. Hasieran herriguneko iurretarrantzat planteatu ziren aparkaleku mugatuak, baina txartela auzotako iurretarrantzat ere izatea adostu zuten foroetan. Trafikoa gutxitzeko neurriak ere onartu zituzten: kamioiak ezingo dira Bidebarrietan sartu, eta auto gidariek herri barruan gehienez 30 kilometro orduko abiadura gidatu beharko dute.

Bildu abstenitu egin zen bozketan, foroetan herritarrek emandako iritziak "ez direlako guztiz aintzat hartu". Iñaki Totorikaguena alkateak dioenez, "hainbat iradokizun ezin izan dira kontuan hartu, baina mahai gainean daude".

Arriaundi SL-ko pastelgintzan protesta gehiago asteon

IURRETA A.U.

Zuzendaritzak kontratuak eteteko erregulazio txostena atzera bota eta gero, Arriaundi SL-ko pastelgintzako langileek proposamen berria jaso dute zuzendaritzatik. LABek azaldu duenez, pastelgintza atala ez dutela itxiko esan dute, eta langileei hiru bide emango dizkiete. Lanpostu batzuk okindegian subrogatuko dituzte, beste batzuk pastelgintzan mantenduko dituzte, eta langile batzuk kalteordainagaz kaleratuko dituzte. LABen ustez, "zuzendaritzaren azken helburua pastelgintza ixtea da".

Atzo, pastelgintzako hamaibost langileek elkarretaratzea egin zuten Durangon. Subrogazioa langile guztiei aplikatzea gura dute, eta Arriaundi SL-ko bi fabrikek, okintzak eta pastelgintzak, negoziazio unitate bakarria izatea.

Elorrioko landaguneetan 22 etxe eraiki ahal izango dituzte

Auzoetarako arau propioa eta bateratuak ezarri ditu udalaren Plan Bereziak

ELORRIO Markel Onaindia
Udalak landaguneei lotutako Plan Berezia onartu zuen uztaileko osoko bilkuran, auzoetan arau propioak zein bateratuak zehazteko. Gainera, etxebizitzak egiteko eskubideak ere ezarri zituzten, eta auzo guztiak kontuan hartuta, 22 etxe eraiki ahal izango dira.

Aurretiaz herri osorako diseinatu zen Hiri Antolamendurako Plan Orokorragaz lotura du landaguneenak, bertan landutakoaren garapena da eta. Udalak prentsa ohar bidez azaldu duenez, "plan berriak zorroztasun osoz betetzen ditu ingurumen irizpideak, landagune horien ezaugarri den bizitzeko moduari eusteko". Horregatik, "garrantzi berezia" eman diote

auzoen betiko paisaiaren zainketari.

22 eraikin

Auzoetan 22 etxe egin ahal izango dira, batzuk familia bakarrek eta beste batzuk familia

Aurretiaz herri osorako diseinatu zen Hiri Antolamendurako Plan Orokorragaz lotura dauka

bikoak. Leiz-Miñotan altxatu ahal dira gehien: zazpi. Horretarako, 28.000 metro karratu edukiko dituzte erabilgarri. Zenitan lau etxerentzako aukera eman dute, 11.000 metro karratu-

tuan; Aldapen hiru etxe, 12.000 metro karratutan; Berrion beste hiru, 9.000 metro karratutan; Mendrakan ere hiru, 11.000 metro karratutan; eta Gazetan etxe bi, 9.000 metro karratutan.

Udaleko eztabaida

Plana uztailean onartu zen, EAJren aldeko botoekin. Espainiako Ur Partzuergoak ez du babestu, Bilduren arabera, saneamendu arloan ez duelako argibide nahikorik ematen. Txostena bilkura baino egun batzuk lehen heldu zen, eta koalizioak eztabaida atzeratzea eskatu zuen. EAJk aurrera egin zuen, planak URA euskal agentziaren onospena duelako. Gainera, jeltzaleen arabera, Espainiako partzuergoarena ez da loteslea.

1.200 bonu egin dituzte Elizaldeko igerilekuetarako

Harpidedunez gainera, 5.000 sarrera saldu dituzte

ELORRIO Markel Onaindia
Uztailaren 3an zabaldu zituzten Elizaldeko kanpoko igerilekuak, eta abuztuaren erdira arte jasotako emaitzak kaleratu ditu udalak. 1.200 bonu egin dituzte, gehienak familiarrak, eta, gainera, egun bakarreko 5.000 sarrera saldu dituzte. Uztailaren

31 izan zen egunik jendetsuena, 870 lagun hurreratu zirelako 1.000 pertsonarentzako lekua daukan instalaziora.

Joseba Mujika alkateordeak adierazi du Elorrioz kanpoko jendea ere etorri dela: "Erreferentziatzeko ur instalazio bilakatu da Bizkaian".



Elizaldeko igerilekuak, abuztuko egun jendetsu batean.



45 urte baino gehiago euskal basoen zerbitzura



Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!



Abuztuan erakusketa berritu dugu



FORD FOCUS
 > EcoBoost motorra
 Esposizioko 1.500
 auto prezio berezian.

7.100
 eurorainoko
 deskontua

www.fordkondia.com



ford.es

Ford Focus gama batez besteko kontsumo konbinatua 4,2tik 7,2 litroa 100 kilometroko. CO2 emisioa 109-169 g/km. Esposizioko auto batzuetara mugatutako deskontua. Eskaintzak barnean biltzen ditu: BEZa, IM, garraioa, promozio deskontua, Aport., kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc S.E. Bankuaren 'Vente a Ford Credit' kanpainaren bitartez finantzitzearen; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Gobernuaren PIVE planaren aportazioari lotuta. Deskonturik handiena aldatu egin daiteke modelooren arabera. Penintsulan eta Balearretan baliagarri hilabete amaierara arte. Beste doskontu batzuekin ez da bateragarria. Irudiko modelook ez du zertan bat etorri eskaintzakoarekin. Ford.es

FORD KONDIA

Otaola etorb. EIBAR
 Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19 IURRETA
 Tel.: 946 815 135

BERRIA



FORD KA

> Auto-Start-Stop sistemarekin

Osagarri ezin hobe bat edukitzeko aukera paregabea.

Edonora eraman nahiko duzu, zure erritmora egokitzen den bakarria delako.

Aprobetxatu, eta eraman ezazu Auto-Start-Stop sistemarekin, aire girotuarekin eta MP3arekin.

5.990€



Oraindik ere ibilgailu erabili bat al duzu buruan?

Gazte saharai bik gaixotasunak sendatzeko tratamendua jaso dute

Rio de Oro ekimenaren bidez, Tindufeko kanpalekuko hamar gazte Izurtzan izan dira; horietako bik gaixotasun larriak sendatzeko tratamendua jaso dute



Hamar gazteek hilabete bi eman dituzte Durangaldean.

IZURTZA Joseba Derteano Aljerian, Tindufeko kanpalekuetan bizi diren eta urritasunen bat duten hamar gazte Durangaldean eman dituzte hilabete bi. Ekainaren amaieran etorri eta joan den domekan itzuli ziren; Izurtzako aterpe txean hartu dute ostatu, Iñurri eskaut taldeak utzita. Hainbat norbanakok sustatutako Rio de Oro egitasmoaren eskutik etorri dira. Aurten bigarren aldia izan du egitasmoak.

Gazteek denboraldi batez bizimodu erosoago bat eskain-

tzea da helburuetako bat, baina baita gaixotasunak dituztenei ahal den heinean laguntzea ere. Horrela, 8 urteko gaztetxo bik euren gaixotasunak tratatu ahal izan dituzte hemen. Egunean hiru bider epilepsia krisiak zituen Raguia osasun tratamendua jaso du, eta hilabete darama krisirik gabe. Iaz ere saiatu ziren, baina lehen tratamendu hark ez zion osasun arazoa konpondu. Mohammeden kasua ere larria zen: bihotzeko arazoak zituen, eta "oso ebakuntza konplikatu" egin diote Gurutzeta ospi-

talean, Rio de Oro egitasmoa sustatzaileetako bat den Mikel del Arcoren esanetan. Oraindik Zaintza Intentsiboetako Unitatean dago; ebakuntza ostekoa onera badoa, Ermuko zentro batean jarraituko du sendatze prozesua, eta, ondoren, kanpalekura itzuliko da.

Aurten egitasmoa "asko sendotu" dela dio del Arcok. Iaz baino "askoz boluntario gehiago" izan dituzte. Herria elkarteak ere lagundu die, iaz legez. Datoren urtean ere antolatuko dute egitasmoa.

Argiteria publikoan dirua eta energia aurreztu guran

Udalak argiteria sistemaren azterketa eskatuko du

ZALDIBAR Itsaso Esteban Herriko argiteria sistema eraginkorragoa zelaz egin aztertu-ko duen enpresa hautatzeko prozesua dauka Zaldibarko Udalak esku artean. Hain zuzen, kontratazio horretarako baldintzak prestatzen dabiltzala azaldu du Arantza Baigorri alkateak. Enpresa aukeratuak Zaldibarko argiteria publikoan eraginkortasun ekonomikoa eta energetikoa

zelan hobetu izango du aztergai. Egitasmo hori aurrera ateratzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Energiaren Euskal Erakun-

Argindar konpainiekin dituen fakturak aldatuta, 20.000 euro aurreztuko ditu aurrerantzean udalak

dearen diru-laguntza eskatu du Zaldibarko Udalak.

Energia aurrezteko, Durangaldeko beste herri batzuetan egin duten bezala, kontsumo baxuagoko argiak erabiltzea izan daiteke neurrietako bat.

Bestalde, alde ekonomikoari dagokionez eta argindarrean daukan gastua merkatu guran, konpainiekin dauzkan kontratuen egoera aztertu du udalak. Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez, hainbat aldaketa egin dituzte kontratuetan. Adierazi duenez, 20.000 euro inguru aurreztuko dituela Zaldibarko Udalak argiaren fakturan, egokitzapen horiek eginda.

Amets Arzallus eta Igor Elortza bertsolariak bihar, Autzaganen

ZORNOTZA J.D.

Gaur hasi eta domekara arte jaiak ospatuko dituzte Autzaganen; aurten hamarkada bat bete dute jaiak berreskuratu zituztenetik. Gaur, 21:00etan, mus txapelketa arina egingo dute. Irabazleek 200 euro eta txapelak jasoko dituzte.

Bihar, txupinazoaren ostean, trikitalariak jai giroa ipiniko dute afalordura arte. Afalostean, Amets Arzallus eta Igor Elortza bertsotan ariko dira; gero, Xabier Amurizak bertsoak, koplak eta istorioak uztartuko ditu. Afaritarako txartelak jatetxean daude salgai. Domekan, 12:00etan, igel txapelketagaz ekingo diote jaietako azken egunari. Bitartean, parrilada egongo da denentzat, Autzagane jatetxeak eskainita. Ordu berean, LoreInka taldeak txalaparta, alboka eta adarra joko ditu, eta Zornotzako Udazken txistulari taldeak kalejira egingo du. 17:00etan briska txapelketa egongo da

Ixer kaleko aparkalekuko lanak hiru astean amaituko dituzte

ZORNOTZA J.D.

Zornotzan doako hiru aparkaleku sortzeko asmoa du udalak, eta horietako bat Ixer kaleko orubean egongo da, domeketan merkatua egin izan den tokian. Orain aste bi hasi zituzten, besteak beste, sartu-irtenak kontrolatuko dituen sistema egokitzeko lanak, eta beste hiru astez luzatuko direla aurreikusten dute udal arduradunek. Bitartean, aparkalekurako sarreran dagoen zelaigunean aparkatzea debekatuta dago. Ixerreko aparkalekuak 146 plaza izango ditu. Astelehenetik barikura goizez eta arratsaldez, eta zapatuetan eguerdira arte egongo da irekita.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU

Aralar



Burokratak

Ate-joka dugu ikasturte politiko berria, eta, horrekin batera, 2015eko udaberriko udal hauteskundeak. Ilusioz bizi dugu Durangok duen aukera berria, bi eredu politikoren artean aukeratzeko. Bata, gaur egun agintean duguna, erakundeetako bulegoetako lubakietatik herriaren etorkizuna kudeatzen duena; eta, bestea, udal politika Herrigintza legez ulertzen duena, bilgune herritarra, zabala eta anitza, eta herritarrekin batera proiektu komuna diseinatuko duena.

35 urtez Durangon agintari burgesak eta klasistak izan ditugu. Erabakiak bulegoetako leihotatik kalera hartu dira, baina kalean egon barik. Horien ereduaren adibiderik adierazgarrienetakoak honako hauek izan dira: hamar urtean alokairu bidezko etxebizitza publikoarentzat 0 euro bideratzea; azken sei urteotako obra publikoetan 10 milioiko gain kostuak babestu eta ontzat ematea; kultura produktu moduan kudeatzea; eta udal aurrekontuak parte-hartzerik gabe egitea, adibidez.

Ba, bada garaia krazia (boterea) demos-i (herriari) itzultzeko; alegia, EAJren burokrazia zaharkitua, herriak gidatutako demokraziarengatik aldatzeko. Ordezkaritikoak ez gara herrian gertatzen denetik aparte bizi garen sasiainkoak, EAJk horrela uste badu ere. Horregatik, udaletxea herritarrez betetzea da gure auzua aurtengo ikasturteko hauteskundeetan, eta euzkotarrek ordezkatzen duten eredu politikoa aldatzea. Finean, Durango ezkerrekoagoa, abertzaleagoa, euskaldunagoa, independentistagoa, ekologistagoa, feministagoa... egitea. Erdu erronkara!

GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com 1955ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO



A. Urreta
podóloga



Podología Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurri-egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea,
10, behea - 48200
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Eraberritzen hasi aurretik arkeologia azterketak egiten ari dira plazan

Aztertzen ari diren gunea “arkeologikoki emankorra” izan daiteke



Orain iturriaren ondoko lurzatian ari dira arkeologia lanak egiten.

OTXANDIO Joseba Derteano Abuztuan hasi dute udaletxe pareko plaza eraberritzeko prozesua. Lehen fasean, iturriaren ondotik hasi eta pilotalekuaren aurreko alderaino dagoen eremua eraberritu gura dute. Baina horretan hasi aurretik, gune horretako balio arkeologikoa zein den jakiteko azterketa bat egiten ari da Iñaki Pereda arkeologoak gidatutako talde bat.

Iturriaren ondoan dagoen gune batean arrasto arkeologikoak aurkitu dituzte, eta baliteke antzinako eraikin batenak izatea; beraz, han hasi dituzte indusketak, baina oraindik ondorioak ateratzeko goizegi dela dio Peredak: “Aurkitu ditugun arrastoak

baloratzen ari gara. Oraindik ezin daiteke seguru ezer esan. Eremuak arkeologikoki emankorra ematen du, baina oraindik goizegi da ezer berresteko. Indusketek aurrera egin ahala jakingo dugu zehatzago benetan zer dagoen gune horretan”. Beraz, momentuz hipotesi bat bakarrik da.

Gune horretan balio arkeologikoa duen zerbait egon daitekeela uste izateko zantzuak aspaldikoak dira. 2001ean Otxandioko herrigune osoan zehar ikerketa historiko-arkeologiko bat gauzatu zuten zortzi guntan; horietako bi plazan izan ziren, eta azterketa horiek erakutsi zuten gune horretan zer-

bait egon daitekeela. Arkeologia lanak hasi aurretik abuztuan egindako georradar azterketak ere zantzu horiek indartu ditu, baina Peredak argi utzi gura du “momentuz zantzuak bakarrik” direla.

Indusketa lanek hiru hilabete iraungo dute. Ondoren, elementu guztiak baloratuko dituzte, txosten bat egingo dute, eta Bizkaiko Foru Aldundira bidaliko dute, bertan aztertu dezaten.

Bitartean, eraberritze lan batzuk aurreratzen ari da udala ahal duen heinean. Esaterako, gune horretan zeuden harrizko eserlekuak inguru horretatik atera, eta eurak eraberritzeko lanak hargin bati esleitu dizkiote.

Zabaldutuzte Garaikoa landetxea eta Aboiz hotela

GARAI Markel Onaindia Martxan daude Garaiko ostatu berriak. Sakristauaren etxea Garaikoa landetxea da gaur egun, eta Arroitebeiti baserria Aboiz jatetxe eta hotela. Ostalaritza arloko eskaintza berri hauekin, herriko turismoak bultzada jasoko du.

Garaikoa zabaltzeko, gotzaindegiak alokatuta hartu dute sakristauaren etxea. Basque Eusk egitasmokoak dira arduradunak; diasporako euskaldunekin

Ostalaritza arloko eskaintza hauekin, herriko turismoak bultzada jasoko du

ibilbide turistikoak egiten dituzte, eta erreferentzia puntu lez erabiliko dute landetxea. Baina edozeinek joan ahalko du bertan lo egitera, erabilera zabalekoa da eta. Zortzi logela dauzkate prest Garaikoan.

Bestetik, Aboiz jatetxe eta hotela jaso dituen Arroitebeiti baserria ezaguna da Durangaldean, urtetan atzera animaliak osatzeko zentroa egon zelako bertan, zoologiko lez ere ezaguna izan zena. Otordu eta ospakizun handiak egiteko prestatu dute baserria, eta bertan lo egiteko aukera ere egongo da. Zazpi gela daude erabilgarri, arduradunek azaldu dutenez.

> DURANGALDEA ASTEON

Kontainer berriak kaleetan

ZABOR BILKETA Amankomun-nazgoak 58 kontainer erosi ditu, eta horiei esker albotik egiten den bilketa sistema herri guztietara ailegatuko da. 48 edukiontzi errefusa jasotzeko izango dira, eta hamar papera biltzeko. Zerbitzua eraginkortu gura dute, eta egitasmoaren aurrekontua 58.000 euro ingurukoa dela adierazi dute.

Abadiñoko Errogatiba Eguna

JAIA Abadiñarrek bihar ospatuko dute Errogatiba Eguna, Urkiolan. Goizean goiz oinez igoko dira, santua lepoan hartuta. Baina, oinez joan nahi ez dutenek, autobusez joateko aukera edukiko dute 10:30ean. Meza 11:30ean hasiko da, santutegian, eta bazkaria 14:00etan egingo dute.

Eskulanak egiten ikasten, Elorrion

IKASTAROA > Iturri kultur etxean eskulanen ikastaroa eskainiko dute urritik abendura bitartean. Azaldu dutenez, dagoeneko zabalik dago izenematea, eta interesa daukateinei Iturritik pasatzeko gonbita egin diete. 946 032 032 telefonoan ere eskatu dezakete informazioa. Ikastaroaren prezioa 180 eurokoa da.

Iritzia

HIZKUNTZAK

Aurten, Alcosseberren (Castello, Herrialde Katalanak) pasau dodaz oporrak, eta bizikletak alokatzen dituen denda batean errotilu hau topatu neban. Hainbat hizkuntzatar itzulitakoa, eta lehen errotilua euskaraz: *Alokairua*. Interes komertziala izan arren, batzuk behintzat konturatu dira mar-

ketinean hizkuntzen erabilerak balio erantsia daukala; enpresa, denda, erakundea prestigiatzen dau, irudia hobetu eta begirunea pizten dau. Mezu horiek euskarazkoak izatea gure gizartearen euskalduntze bilakabiderako oso lagungarria litzateke. Ia ikasten dogun!

Maite Gerenabarrena



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarfeak barne).

> Berbaz

Irune Uriarte | Biologoa eta UKnaturako kidea | Algorta, 1985

“Haur eskola material naturalekin eraiki dugu, eta jendearen parte-hartzea bultzatu gura izan dugu”

Elorrioko Txintxirri ikastolak haur eskola berria bertako materialekin eta auzolanean eraiki du



Bioeraikuntza ikastaroan diharduen lantaldea.

> BERBAZ Jone Guenetxea

Txintxirri ikastolak Haur Hezkuntzako ikasleentzako espazio berria eraikitzen dihardu. 250 metro koadrodun eraikin bat ari dira sortzen bioeraikuntza ereduari jarrituz. Aste honetarako eta hurrengorako UKnaturak ikastaro bat antolatu du, eraikinaren isolamendu naturala zelan egin irakasteko. 0-2 urte arteko umeengan autonomia eta elkarlana bultzatu guran, espazioa pedagogiaren mesedetan erabiltzea dute helburu. Proiektu honetan guraso eta irakasleek bat egin dute. Irailean 39 umerekin estreinatuko dute haur eskola.

Zer da UKnatura?

Kooperatiba elkarte bat da. Gure helburua da bioeraikuntzaren eta ingurumenaren arloan ikastaroak antolatzea eta proiektuak martxan jartzea. Antxon Alkaldak eta biok sortu dugu ekimena. Antxon arkitekto teknikoa da, eta ni biologoa naiz. Bera bioeraikuntza arloan espezializatu da, eta ni ingurumen hezkuntzan.

Zelan sortu da UKnaturak Elorrioko ikastolaren proiektu honetan parte hartzeko aukera?

Bizkaian bioeraikuntzaren adiskideen batzarrak egiten dira hilero. Bertan biltzen gara arlo honetan dihardugun hainbat eragile. Silvia Urrutxi arkitektoa Txintxirriko gurasoa da, eta bere bidez eta Oreka arkitektura estudioaren bidez bat egin genuen.

Zer berezitasun dauka haur eskolak?

Haur eskola material naturalekin eraiki da. Egitura egurrezkoa da, Egoinek egin du. UKnatura iparraldeko eta mendebaldeko hormak egiten ari da, hotzenak direnak, lastoz isolaturik. Karea-gaz *errebo*koak egingo ditugu. Beraz, inguruko material naturalak erabiltzen ari gara.

Bioeraikuntza eraikitzeke modu bat da, baina lan egiteko filosofia bat ere bai.

Bai. Proiektu honetan jendearen parte-hartzea bultzatu gura

izan dugu. Horretarako, ikastaroa antolatu dugu gurasoentzat, eta baita interesa daukan edozein elorriarrentzat ere.

Guraso eta herritarren artean zein harrera izan du proiektuak?

Oso harrera ona izan du. Jendeak lan egiteko gogo handia erakutsi du. Kanpotik ere etorri da jendea; Zaragozatik, esaterako. Elorrioko eta inguruko jende ugari ere gerturatu da. Bi astean amaitu behar dugu gure lana.

Ikastaroa zelan antolatu duzue?

Lehenengo egunaren hasieran alde teorikoa azaldu genuen. Lehenengo aste honetan bi pareren itxitura egiten gabiltza. Lastozko fardelak erabiltzen gabiltza horretarako, isolamendurako. Datorren astean, *errebo*koak egiten hasiko gara. Karea, lastoa eta area erabilia fardelak forratuko ditugu, eta akabera egingo dugu.

“

Iparraldeko eta mendebaldeko hormak, hotzenak direnak, lastoz isolatuko ditugu

Bioeraikuntza arloan diharduten hainbat profesional gonbidatu dituzue.

Arlo honetan lanean dabiltzan arkitektoak eta Etkezaharrekoak etorriko dira ikastarora.

Eraikuntza modu honek umeengan eragin dezake?

Uste dugu umeek nabaritutako dutela. Datorren astean hemendik ibiliko dira, eta beraiek ere ikusiko dute zelan egiten den. Gurasoak, ingurutik pasatzen direnean, begira gelditzen dira.

Bioeraikuntza ereduaren bidez espazio bat sortzeak zer esan nahi du?

Natura errespetatzen duten bertako material naturalak erabiltzea esan gura du. Era berean, obra mota honetan jendearen parte-hartzea bultzatu gura dugu, bakoitzak bere proiektua aurrera eramateko. Obra konbentzionaletan zailagoa izaten da. Gainera, bertako materiala erabilia, ez da hainbeste diru behar. Hori bai, ahalegin handia egin behar da.

Lara Izagirre Garizurieta | Zornotza, 1985 | 'Un otoño sin Berlín' filmaren zuzendaria

“Ilusio handia egiten dit nire lehenengo film luzea Zornotzan grabatzeak”

Urrian bere herrian grabatuko du Lara Izagirrek 'Un otoño sin Berlín' filma

> ZINEMA Itsaso Esteban
Zer da 'Un otoño sin Berlín' filmagaz kontatu nahi duzuna? Oraindik ere hori bilatzen dihardut. Idazten hasi nintzenean ez nintzen konturatzen zertan nabilen. Denboragaz ohartu naiz ideia nagusiak gizabanakook elkar onartzeagaz zerikusia duela. Ez genuke bestea aldatzen saiatu behar. Kasu honetan, filmean, bikote harreman batean ikusten da hori.

2011tik asko garatu da ideia?
Bai, zortzigarren bertsioagaz gabiltza: hasierako ideia mantendu dugu, baina elkarriketak, esaterako, askoz landuago daude orain, eta pertsonaiak ere askoz hobeto definituak. Idatzi nuenean, uste dut ez nuela nire burua film luze bat zuzentzeko prest ikusten. Baina idatzi nuen, eta bitartean *Next stop Greenland* eta *Sormenaren bide ezkutuak* film laburrak egin ditut. Urtetebete baino gehiagorik edukitu dut film luze hau egiteko proiektua gelditu, kutxatik ateratu eta mugitzen hasi arte.

Izenburua filmaren argumen- tuaren pista argia da?
Udazken hasieran hasi eta amaierara artekoa da *Un otoño sin Berlín* filmeko kontakizuna. Diegoren eta Juneren amets bat da Berlin. Atzerrian bizi izan eta gero, herrira bueltatzen da June, eta Diegogaz Berlinera bizitzen joaten saiatzen da. Gauza asko gertatzen da udazken horretan.

Zeu ere atzerrian bizi izanda- koa zara. Asko dauka zure bizi- penetatik istorioak?
Orain ari naiz horretaz konturatu- zen... Ez nuke esango ez pertso- naia bat, ez bestea naizenik, bai- na biek dute niretik zer edo zer. Honelako prozesuetan ezin duzu ihes egin: konturatu barik zoaz zure izaera sartzen. Bizitzak eragina du: inguruan daukazun jendeak, irakurtzen duzunak... Baina edozelan ere filmeko isto- rioa ez da autobiografikoa.

Zer puntutan zaudete filmaren sorkuntza prozesuan?
Urriaren 6an hasiko gara graba- keta lanagaz, eta aurreproduk- zioa deitzen den fasean gaude orain; gidoiari azken ukituak ematen, aktoreekin probak egi- ten, bigarren mailako aktoreak aukeratzen, kamerekin probak egiten eta talde teknikoa osatzen, adibidez.

Inoiz zuzendu duzun lantalde handiena da, ezta?
Bai, horrela da. Bakoitza bere lanetan hogeitai lagun inguru gabiltza orain, baina gehiago ere izango gara gero. Lantalde teknikoan, orain arte nigar lan egin dutenak badaude, baina badago orain ezagutu dudana ere.

Nolako sentsazioak dituzu hain lantalde handiagaz lanean?
Orain zatika egiten gabiltza dena: egun batean jantzien arduradunagaz, bestean argazki zuzendariagaz... Denak batera niri begira ikusten ditudanean, orduan izango da bestelakoa. Edozelan ere, laguntza handia izango dut, eta topera aprobetxatu- tuko dugu esperientzia; izan ere, ez dakigu beste aukerarik izan- go dugun film luze bat egiteko.



New York Film Academy eskolan ikasi zuen Izagirrek zinema zuzendaritza.

Istoria Zornotzan izango zela hasieratik eduki duzu argi?
Atzerrian bizi izan den neska bat ia abisatu barik bueltatu da herrira, Zornotzara. Ama hil zitzaionean, bizitzako une latz

batean, ia abisatu barik joan zen, eta bi urte eta gero bueltatu da herrira. Herri bat aukeratu behar nuen, eta neurea aukeratu dut. Ilusioa egiten dit nire lehenengo film luzea Zornotzan kokatzeak.

New York Film Academy eskolan ikasi zuen Lara Izagirrek zinema zuzendaritza. “Han ikusi nuen argi hau zela egin nahi nuena: sorkuntza, talde lana...”. Ikasketak bukatuta, urte eta erdian hango ekoiztetxeetan jardun zen lanean, Euskal Herrira bueltatu, Gariza Produzioak ekoiztetxea martxan jarri, eta film laburrak eta ikastaroak ematen hasi zen arte.

Ikus-entzunezkoen hainbat tailer eskaini ditu, esaterako. “Bakoitzak ikasi dugun hori beste batzuei erakusteko” espazio gehiago sortu behar genukeela uste du Izagirrek. Izan ere, Arkaitz Basterra zornotzarrak eman zuen ikastaro batean hurreratu zuen Izagirre lehenengoz zinemara. Zornotzan zinekluba antolatzen duen elkarte kide ere bada Izagirre: “Komunitate bat sortzea da gure helburua, zinema gustuko duen jendea elkartzeko”.

Herrikideentzako gauza polita eta berezia izango da, ezta? Nabari duzu hori?

Bai, nabari da jendea pozik da goela. Hurbiltzen zaidan jendeak animo asko ematen dit: “Oso ondo aterako zaizu: arrakasta handia izango da filma!”, edo, “har nazazu estra lanak egiteko!”, esaten didate. Filmeko umearen papera egingo duen haurra aukeratzeko egin genuen hautaprobea izan zen jendearen ilusio horren erakusle; 100 ume baino gehiago etorri zitzaizkigun, gehienak Zornotzakoak edo inguruak.

Asko igarriko da grabazio egu- netan zinemazale giroa Zornotzako kaleetan?

Grabaketaren zati handi bat barrualdekoa da, baina badau- kagu eszenaren bat plazan ere, esaterako. Eszena hori grabatze- ko, adibidez, kale batzuk itxi beharko dira, eta seguru jendea hurreratu zaitza.

June eta Diegoren paperak, Irene Escolar eta Tamar Novasen eskutik

Irene Escolar aktoreak egingo du filmeko protagonista nagusiaren papera

Hautaketa prozesuan ezagutu zuen lehenengo aktorea, Irene Escolar madrildarra, aukeratu zuen Lara Izagirrek *Un otoño sin Berlín* filmeko protagonista- ren papera egiteko. June izate- ko. Filmari buruzko solasaldia- ren ostean, Escolar tabernatik ateratzen ikusi zuenean, “hor- doa gure June” pentsatu, eta erabakia hartu zuela azaldu du zuzendari zornotzarrak.

Diegoren pertsonaia nork egingo zuen, ordea, ez omen zuen hain argi, eta Escolarrek proposatu zion Tamar Novas. *Mar adentro* filmean egindako lanagatik errebelazio aktore onenaren Goya saria irabazi zuen 17 urteagaz Novasek. Gi-

doia asko gustatu zaio, eta Escol- larregaz lan egiteko gogo handia dauka. Gogotsu onartu du Novasek Izagirreraren eskaintza.

“Oso pozik nago eurekin”, dio zuzendariak filmeko aktore nagusiez. Zineman gutxitan egiten dena egin ahal izan du eurekin: aktoreekin gidioa lan- du du hiru astez, grabaketara hirurak buruan film beragaz heltzeko. Izagirrek azpimarra- rratu duenez, lanerako gogo handia eta dedikazioa eskatzen du horrek, baina “euren ofizioa maite dute, eta entseatzeko go- gotsu daude”.

Bestetik, Mariano Estudillo aktore durangarrak egingo du Juneren nebaren papera,

Naiara Carmonak haren lagu- nik onenarena, Ramon Bareak aitarena, eta Liher Quesadak Nikorena, Juneren ikaslearena.



Filmaren kartela.

Lauka Teatroa konpainiaren 'Amodioaren ziega' antzezlanaren izan da irabazle Zubi lehiaketan

Euskarazko antzerki sorkuntza indartzeko helburuz antolatzen dute lehiaketa



Joana Ocaña, Nazaret Froufe eta Eneko Sagardoy eskualdeko aktoreak dira Lauka proiektuko partaideetako batzuk.

> ARTE ESZENIKOAK I. Esteban Lauka Teatroa konpainiaren *Amodioaren ziega* antzezlanaren hautatu dute antzerki sorkuntza sustatzeko helburua duen Zubi lehiaketako antolatzaileek 2014ko deialdiko saridun. Lauka Teatroa antzerki talde sortu berriaren proiektua babestuko dute, beraz, Zubi ekimena bul-

tzatzen duten Euskal Herriko antzerkigintzako eragileek; proiektua garatzeko diru-laguntza eta aholkularitza artistikoa emango diete taldekideei, ekimenean parte hartzen duten antzokietan antzerkia muntatzeko egonaldiak egiteko aukera eskainiko diete, eta lana amaitzen dutenean emanaldiak lotuko

dizkiete areto horietan, *Amodioaren ziega* ikusleenganaino zabaltzeko bidea errazteko.

Durangaldeko hainbat kidek osaturiko taldea da Lauka Teatroa. Urki Muguruza zarauzta-rragaz batera Durangaldeko hiru aktorek dihardute konpainia berri horretan: Eneko Sagardoy eta Joana Ocaña durangarrek

eta Nazaret Froufe berriztarrak. Durangoko Karrika Antzerki Taldeko kideak dira hirurak.

Aitorrek eta Mirenek osaturiko bikotearen istorioa da *Amodioaren ziega* obraren muina; kartzelan preso dagoenaren eta bisitan doakion bikotekidearen istorioa; "aske izan eta bizi-rik sentitzeko eskubideagatik borrokan" diharduten pertsonaien kontakizuna.

Lehenengo egonaldia

Xabier Mendigurenen testuetan oinarrituriko antzezlanaren da *Amodioaren ziega*. Hain zuzen, testu horiek eszenara zelan eramantzen jardun dira aktoreak; horretarako irakurraldiak eta inprobisazio saioak egin dituzte uztailean, Durangoko San Agustin kulturgunean egin duten lehenengo egonaldian. Antzezlanaren Leioako Kultur Martila jaialdian estreinatuko, irailean Leioan, azaroan Zumaietan, eta 2015 urte hasieran Luhuson elkartuko dira Laukako kideak, *Amodioaren ziega* antzezlanaren prestatzeko.

Lauka taldearen proiektuaz gainera, beste hiru egitasmo lantzen ere lagunduko du Zubi: Metrokoadroka, Ze Onda eta Hautsi antzerki taldeenak.

Euskarazko antzerki sorkuntzari bultzada bat emateko helburuagaz sortu zuten Zubi ekimena duela urte bi Euskal Herriko zortzi erakundek, eta *Konpota* obra izan zen aurreko deialdiko emaitza.

GEURE DURANGALDEA

AINHOA
URIEN

Ikaslea



Gerrak

Uda lehorte ezinik pasa da. Euria zerutik opari eta hondartzarako goseak zuloa egin du hainbaten tripetan. Eguzkia zulorik aurkitu ezinik ibili da hodeien artean, irribarre egiteko paradirik ez da izan ahazturaren itsasoetan. Gazatik iritsi zaizkigu jada memoriaren izkina batean zokoratu ditugun hamai-ka gerratako bonba hotsak, eta odola erreka bihurtu denean hasi gara bertako berriak jasotzen. Gazan hildakoak, bonbak, negarrak, guraso bako haurrak eta haurrik gabeko gurasoak; eta, bitartean, gorbatak estutzen batzuk eta bikiniak armairutik noiz aterako zain beste batzuk. Palestinan hil direnak Ukrainan ere zendu dira, Vietnamen bizia galdu zutenen odol arrastoek jarraitzen dute, eta gurean hobi komunetan hezurrez egindako memoria tirokatzen da etengabe.

Ahaztutako gerrak eta gerrak ahanzturara jaurtitakoak. Oroimena ez da soilik bandera ateratzea, sare sozialetan atxikimendua adieraztea eta Gazara (edo beste hamaika sarraski gunetara) arroza, konpresak eta olio bidaltzea. Beharra dutenei zirkunstantzian laguntza beharrezkoa da, baina ez da horrekin konpontzen, arazoaren muinera jo behar da, ez karitatera.

Ekialde Hurbileko gerrei gure aurkakotasuna adierazten diegun bitartean, mesfidantzaz begiratzen diegu gure lur-inguruko uretan itota hiltzen diren etorkinei, eta hobe bai hondartzarako eguna aukeratzea ahazturaren itsasoetatik erreskateak egitea baino.

Badugu bai zer ikasia datozengandik, hemen daudenengandik; ekintza zuzenik ezean jai dugu, mundua ez baita Internetetik aldatuko, hala bada, hobe dugu oraindik iraileko eguzki printzen zain egotea eta hondartzan gure memoriak urperatzea.

Durangaldeko historiari buruzko literatur lehiaketa

Gerediaga Elkarteak eta 13 udalek antolatu dute

> LITERATURA

Gerediaga Elkarteak, Elkar Fundazioak eta Durangaldeko hamahiru udalek elkarlanean antolatu dute Juan Ramón de Iturriza mikroistorio lehiaketa. Durangaldeko historiako egiazko gertakizunen batekin lotutako idazlanak aurkeztu beharko dituzte parte hartu gura dutenek, azaroaren 22a baino lehen.

Hemezortzi urtetik gorako edonork har dezake lehiaketan parte, eta gehienez ere 12.500 karakterekoa izan beharko du idazlanak. Liburuak eskuratzeko 400 euroko txartel bi izango dira sari nagusiak. Bestalde, Berrizi buruzko lanik onenak ere 200 euroko saria jasoko du. Gerediaga Elkartearen webgunean daude lehiaketaren oinarriak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa, Bibliotekan

Atzerriko hiru hizkuntza praktikan, Iurretan

> MINTZAPRAKTIKA

Iurretako Herri Bibliotekan iaz martxan ipini zuten ekimena da atzerriko hizkuntzen mintzapraktika taldeena. Ikasturte honetan ere ingelesez, alemanez eta frantsesez berba egiteko elkartuko dira partaideak, astean behin. 16 urtetik gorakoei zuzenduriko doako eskaintza da Herri Bibliotekarena. Deustuko

Unibertsitateagaz eta EHUguz elkarlanean, ingelesa, frantsesa eta alemana ama hizkuntza dauzkaten dinamizatzaileak ariko dira taldeok gidatzen.

Iurretako Bibliotekako arduradunek jakinarazi dutenez, urriaren 6an jarriko da abian ekimena, eta irailaren 25era arte egongo da parte hartzeko izena emateko aukera.

Irailean denboraldi BERRIA

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

IRAILAK 18 - 19:00etan DOAN KANTULAGUNEI... LEHEN KANTU BAT
Ikasturte hasierako zita
AURKEZPENA

IRAILAK 25 - 19:00etan DOAN AINHOA ETXAIDEREKIN HIZKETAN
LAB sindikatuko idazkari nagusia aurrezaurre
ELKARRIKETA

IRAILAK 26 - 22:30ean 6 / 7 euro
MOBY DICK eta LOU TOPET
MUSIKA KONZERTUA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4A 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu
deitu!




946 217 902

JAI AK!

2014ko ABUZTUA - IRAILA | Elorrio

FERIXA NAUSIKOAK 2014



**ELORRIOKO UDALAK FERIXA NAUSIKO
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE!**



Elorrioko udala



ELORRIOKO JAIEN EGITARAUA

IRAILAK 5, BARIKUA

Egun osoan: Aukeren azoka. Elizpean.

19:00 Pilota partiduak. Plazako pilotalekuan.

GAZTE EGUNA Txosnagunean.
Tailerrak. Herri bazkaria.

23:00 Kontzertuak:
Pixontxis eta South Central.

00:00 Gau elektronikoa. Gaztetxean.

IRAILAK 6, ZAPATUA

Goiz eta arratsaldean, Elizalden.

10:00 Kimuen txapelketa.

16:00 Elorrio-Amorebieta gaztetxoaren txapelketa.

18:00 Elorrio-Ermua kadeteen partidua.

12:00-14:00 / 17:00-20:00 Haur parkeak.

18:45 Bits jaia. Pilotalekuan.

19:00 Ai Ene erromeria (1. saioa). Plazan.

20:00 Txupinazoa eta pregoia. Plazan.

20:05 Ai Ene erromeria (2. saioa). Plazan.

20:30 Mariatxi Internacional (1. saioa).
Urarka-kalejira.

23:00 Danborrada. Plazan.

00:20 Suzko zezena. Plazan.

00:30 Mariatxi Internacional (2. saioa).
Urarkan.

23:00 Bad Sound System. Txosnagunean.

23:00 Las Ratas Calibre 11. Gaztetxean

02:00 Summum Art. Txosnagunean.

IRAILAK 7, DOMEKA

10:00 Abeltzaintza eta nekazaritza azoka.
Feriagunean.

Goizean, txistularien kalejira.

13:00 Kalejira. Asoc.cultural M'Lomp
(Senegalgo musika eta dantza).

18:00 Esku pilota partiduak.
Hilario Azkarate pilotalekuan.

19:00 Umeen danborrada. Plazan.

20:00 Orquesta London (1. saioa). Plazan.

20:00 Antzerkia. Txosnagunean.

20:00 Suzko zezena. Plazan.

22:15 Orquesta London (2. saioa). Plazan.

IRAILAK 8, ASTELEHENA

14:00 Kuadrillen arteko bazkaria eta tortilla
lehiaketa. Aldatsekuan.

16:30 Rockalean (kontzertua). Aldatsekuan.

18:00 Kuadrillen jaitsiera. Diskoteka
mugikorra.

18:45 Kuadrillen arteko jokoak. Makro disko
Abiba DJ jaia (1. saioa). Plazan.

19:30 Erromeria Arantza eta Pantxorekin.
Urarkan.

21:00 Karaokea. Txosnagunean.

22:15 Suzko zezena. Plazan.

22:30 Makro disko Abiba DJ jaia (2. saioa).
Plazan.

IRAILAK 9, MARTITZENA

12:00-14:00/17:00-20:00 Umeentzako
puzgarriak pilotalekuan, ludoteka eta ohe
elastikoak plazan eta Arriola kalean, txirrista
erraldoia Esteibarlandan eta tren txu-txua
plazan irtenda.

18:00 Elorrio-Ermua gaztetxoaren partidua.
Elizalden.

19:30 Jokoak, kantak eta koreografiak -
A ze nolako banda parranda. Plazan.

IRAILAK 10, EGUAZTENA

16:30 Umeentzako jolasak. Plazan.

17:00 Jinkana. Plazan.

18:00 Txokolatada. Plazan.

18:00 IV. Elorrio hiribildua hiru talderen arteko
elkartasun txapelketa: Elorrio-Amorebieta-
Bilbao Athletic. Elizalden.

18:30 Gaur jaia umeentzako berbena.
Plazan.

IRAILAK 11, EGUENA

17:00 Nesken areto futbol triangularra :
Elorrioko Buskantza, Atxurre Bakio eta
Sasikoa. Kiroldegian.

20:00 Pintxo-potea eta euskal dantza
ikastaroa. Txosnagunean.

22:00 L. Idi proba txapelketa. Probalekuan.

IRAILAK 12, BARIKUA

12:00 Hildako jubilatuen omenezko meza.
Sortzez Garbiaren Basilikan.

13:00 Piskolabisa Elorrioko jubilatuentzat.
Aldatsekuan.

16:00-20:00 Haur parkeak.

17:00 eta 19:00 Areto futbol partiduak:
Elorrioko Buskantza A eta B. Kiroldegian.

19:00 Dúo Imperial, salsa eta mariatxiak.
Erromeria eta dantza txapelketa. Aldatsekuan.

19:30 Uztai disko festa umeentzako.
Urarkan.

21:00 Errusiako Cosaco Ballet nazionala:
Miguel Strogof. Arriolan.

22:00 L. Idi proba txapelketa. Probalekuan

22:15 Suzko zezena. Plazan.

22:30 Demode Quartet. Urarkan.

23:00 Eratu-Han. Gaztetxean.

23:00 DJ Fliyu. Txosnagunean.

IRAILAK 13, ZAPATUA

8:00 Sukalki Eguna. Aldatsekuan.

10:00 Kimuen txapelketa. Elizalden.

12:00-14:00/17:00-20:00 Haur parkeak.

13:15 Kalejira. Bertzi Gazte Brass Band.

17:00 Taberna Ibiltaria. Aldatsekuatik
kalejira.

17:00 eta 18:15 Areto futbol partiduak.
Elorrioko Buskantza C eta Gazteak.
Kiroldegian.

17:30 Karrozen jaitsiera: Ustekabe fanfarrea.

18:00 Txokolatada. Plazan.

18:45 Oihan Vega DJa. Plazan.

22:00 L. Idi proba txapelketa. Probalekuan.

22:30 Su artifizialak. Galartzaurian.

23:00 Trío de Medianoche. Urarkan.

23:00 Iheskide + Betagarri. Txosnagunean.

01:00 DJ TRON/P. Gaztetxean.

IRAILAK 14, DOMEKA

Goizean, Elkartasunaren jaialdia. Plazan.

13:00 Herri kirolak. Bihurri aita-semeak
eta Zelai aita-semeak aizkoran.
Joseba Ostolaza eta Udane Ostolaza
harri-jasotzaileak. Oskar Basatxu eta Laura
Basatxu: Iparraldeko jokoak. Plazan.

18:00 Bertso saioa: Igor Elortza, Sustrai
Colina, Uxue Alberdi eta Eneko Abasolo
'Abarkas'. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.
Casajaran.

19:15 Xabi Aburruzaga, folka eta trikitia.
Plazan.

IRAILAK 15, ASTELEHENA

22:00 L. Idi proba txapelketa. Probalekuan.

Galdaragintza

Forja artistikoa
Enpresen mantentzea



Berriozabalbeitia, 10
Tel.: 94 658 45 47 - Fax: 94 658 28 88
48230 ELORRIO (Bizkaia)
ezagunsl@ezagunsl.e.telefonica.net



Eugenio Sánchez
Agustin Urien



Argiñeta

Hirigintza eta
inmobiliaria bulegoa

jai zoriontsuak izan!

zure konfiantzazko inbiliaria

Urarka, 1 - 48230 Elorrio • Tel.: 946 820 041 - Faxa: 946 231 630 • argineta@euskalnet.net • www.argineta.net



ALBAITARITZA KLINIKA

www.zaindu.net

Ibarra, 8 -48230 Elorrio
Tel.: 946 820 494

Gazetako kofradiak Ferixa Nausiko jaiei hasiera emango die

Kofradiaren 400. urteurrena dela-eta, Gazetako kofradiak botako du jaietako txupinazoa

> **TXUPINAZOA** J. Guenetxea
Sorpresaz eta ilusioz hartu dute Gazetako kofradiako kideek Ferixa Nausiko txupinazoa botatzeko ardura. Ana Otadui alkateak jaien aurkezpenean azaldu zuenez, "Gazetako auzokideek Elorrioren jatorria diren landa inguruetako auzoetako biztanleen lan guztia simbolizatzen dute".

Nerea Landaburu kofradiako kideak adierazi du 400 urte betetzea garrantzitsua dela eurentzat, eta hori herri guztiagaz partekatzeko aukera izango dutela. Gazetako kofradiaren estatutuak idatzi zirenetik 400 urte igaro diren arren, auzokideek aurretik ere funtzionatzen zuten kofradia moduan, Landabururen berbetan. Sasoi hartan kofradia auzoa antolatzeke

modu bat zen. "Gauza asko auzoan bertan konpontzen ziren. Gainera, auzolana sustatzeko ere balio zuen". Baina, 1968an, elkarre gastronomikoa sortu zenean, kofradiaren jardunean aldaketa handia gertatu zen. Hala ere, auzokideek diotenez, auzolanaren espirituak hortxe jarraitzen du. Nerea Landaburu iaz arte izan da kofradiako presidentea. Orain, aldiz, bere osaba Patxi Landabururi pasatu dio lekukoa. Urteurreneko ospakizunekin lanpetuta ibili dira orain arte.

Su artifizialak

Aurtengo jaietako nobedadeetako bat su artifizialak dira. 2008an antolatu zituzten azkenengo suak, eta, aurtun, osteratarri dituzte egitarauan. Iraila-



Gazetako kofradiako kideekin jai egitaraurako ateratako argazkia.

ren 13an, 22:30ean, Esteibarlanda kaletik jaurtiko dituzte suak.

Era berean, umeei zuzendutako ekintzak ugaritu egingo dituzte aurtengo Ferixa Nausikoetan. Horretarako, animazioz betetako hiru erromeria izango dira, A ze nolako banda parranda, Uztai disko festa eta Gaur

jaia taldeekin. Gainera, tren txutxia eta txirrista erraldoia ere izango dira.

Astelehenerako, irailaren 8rako, plazan makrodiskoteka prestatuko dute, eta, zapatuan, irailaren 13an, Oihan Vegak girotuko du jaiak. Ez da lehenengo aldia izango; hiru-lau urte daromatza Vegak arratsaldeko giroa jartzen. Gauean, Iheskide talde elorriarrak eta Betagarri gas-teiztarrak kontzertuak eskainiko dituzte txosnetan.

Igor Elortza, Sustrai Colina, Uxue Alberdi eta Eneko Abasolo 'Abarkas' arituko dira bertsotan

Bestelako musika gogoko dutenek Arantza eta Pantxo, Senegaleko dantzak eta perkusioak, London orkestra eta beste hainbat proposamen izango dituzte aukeran.

Gainera, urtero jendetza biltzen duten ekitaldiei eutsiko die-

te aurtun ere. Sukalki Egunak, helduen eta umeen danborradak, karrozen jaitzierak, tortilla txapelketak, kuadrillen arteko jolasek eta beste hainbat ekitaldik biribilduko dute egitaraua.

Arrakasta handia izaten duen beste ekitaldietako bat suzko zezena izaten da. Aurtun ere izango da suzko zezena jaietan, irailaren 6an, 7an, 8an eta 12an.

Bertsolariek ere publiko fide-la izaten dute Elorrion. Irailaren 14an Igor Elortza, Sustrai Colina, Uxue Alberdi eta Eneko Abasolo *Abarkas* bertsotan arituko dira Casajaran. Maite Berriozabal gai-jartzaile berriztarrak gidatuko du ekitaldia.

Azkenik, udal ordezkariak diotenez, berdintasunaren alde egiten ari diren lanaren barruan, ahalegina egin dute programazio guztia jasotzen duen liburuxkak jai parekideen beharra erakutsi dezan. Hori dela eta, liburuxkako argazkiek Elorrion hainbat arlotan -jaietan, kulturean, kirolean eta hezkuntzan- lan egiten duten taldeetako emakumeak erakusten dituzte; emakumeen elkarrekin eta danborrada antolatzen duten neskek, besteak beste.



lazo jaietan ateratako argazki bat.

JUAN BERISTAIN

NEKAZARITZARAKO TRESNAK
Salmenta eta konponketa

HONDA
STIHL
SAME
pasquali
VIKING
CARON
BCS

Berriozabalbeitia, 14 - Elorrio -Tel./Faxa: 946 231 803 - juanberistain@telefonica.net • www.juanberistain.com



FERIXA NAUSIKOAK 2014

CAFETERIA
IRISARRI
 "Enri"
 Tel.: 94 658 31 19 Elorrio (Bizkaia)

XNR
 TABERNA
 BERRIOTHOA 43, 48230 ELORRIO - TEL.94 658 34 65

PARRA taberna
 parra@parrataberna.com www.parrataberna.com

PORTALEKUA
 EUSKAL PRESOK
 PORTALEKURA

Gastro Taberna
Katxo
 SAGARDOTEGIKO MENUA
 GOSARIAK MERIXENDAK
 BAZKARIAK EGUNERO ZABALIK
 AFARIAK MENU BEREZIAK
 San Fausto kalea, 25 - Elorrio - 94 658 29 67

Xelai Taberna
 Entzaldak Ranzak
 Ardoak Pizpak
 Otxardak Oloskak
 Postreak...
 Nizeto Urkizu, 37-39 | 48230 ELORRIO Bizkaia
 T 946 550 266

Etxeak hustu eta Aldatsekua jantoki erraldoi bihurtuko dute elorriarrek

Astlehenean eta bigarren zapatuan 1.800 aulki inguru banatuko dituzte

> EGUNEZ JAI Amaia Ugalde Eguzkipean gerizpe bila, eta euritarako ere prestatuta; Aldatsekuako inguruak bazkaritarako beteko dituzte elorriarrek Kuadrillen Egunean eta Sukalki Egunean. Goizean goizetik martxan ibiltzen dira kuadrillak bi egun horietan, eta azken urteotan karpa eta guzti igo dira asko bertara, suak isiotu, eta paella edo sukalki prestaketara.

Udaleko beharginek iaz 1.800 aulki inguru banatu zituztela gogoratu du Fernando Azkarate Kultura zinegotziak. Aurten ere antzera izango da. Soinean: astlehenean, kuadrillako kamiseta eta, Sukalki Egunean, mozarroa. Menua: arroza batean eta gisatua bestean. Urtero 120 lapiko inguru aurkezten dituzte sukalki txapelketara. Nahitazeko

osagaiak okela eta patata izaten dira. Saltsarako, berriz, barazkiak (kipula, porrua, piperra, berakatza, tomatea, ilarra eta azenarioa), ardoak eta likoreak erabili daitezke.

Kuadrillen Egunean ohiko erromeriaren ordez, karaokea izango dute txosnagunean

Kuadrillen Egunean 09:00etan hasiko dute mahaien eta aulkien banaketa, bazkalostea Rockalean taldeak girotuko du, eta kalejiran diskoteka mugikorragaz joango dira. Kuadri-

llen arteko jokoak 18:45 aldera hasiko dituzte. Aurten, berrikuntzetako bat txosnetan izango dute kuadrillek; ohiko erromeriaren ordez, karaokea izango dute bertan, 21:00etatik aurrera.

Sukalki Egunean goizean goizetik hasten dira okela samurtzen elorriarrek. Iturrizoro elkarteak antolatzen du lehiaketa urtero. Azken hiru-lau urteetan Mozorro Eguna ere izaten da egun berean, eta kuadrillek karrozak egiten dituzte bazkalostean plazara jaisteko. *Erlea* da aurten txosnaguneak mozarrotzeko proposatu duen gaia.

Arratsaldean, 17:30 aldera hasiko da karrozen jaitsiera, eta 18:45 inguruan, plazan, karrozen aurkezpena egingo dute. Horren ostean, Oihan Vegak disko festa hasiko du.



lazko bazkari prestaketak, Kuadrillen Egunean eta Sukalki Egunean.

Attarden eta Zubigarairen kartela jaiak iragartzeko

ANBOTOk ematen duen 500 euroko saria eskuratu du kartel irabazleak

> KARTELA Jone Guenetxea Elorrioko abesti ezagun baten letran oinarrituta, karrusel batean hainbat atso asto gainean tronpetak jotzen agertzen diren kartelak irabazi du aurten Ferixa Nausikoetako kartel lehiaketa. Sormen prozesu berezia izan du saritutako kartelak. Joseba Attard diseinatzaile elorriarrek herriko jaiak iragartzeko kartel lehiaketan parte hartzeko ideia bat izan zuen. Momentu horretan sortu zen bere herriki-de bategaz kartela elkarlanean egiteko asmoa. "Nik ez dut ondo margotzen, eta Aiert Zubigarairengana jo nuen". Beraz, Attardek ideiarene zirriborroa bidali

zion Zubigarairi. Bigarrenak marrazkia egin zuen eta diseinatzaileari pasatu zion. Koloreztatu eta jantzi egin zuen Attardek.

Ferixa Nausikoetako kartel irabazlearen saria "elkarlanaren fruitua" dela azaldu dute bi egileek

Hurrengo egunean, kartela udaltxean entregatu zuten, lehiaketan parte hartzeko asmotan.

Attardek eta Zubigarairi osatutako bikoteari eman zion kartel lehiaketako epaimahaiak 500 euroko lehenengo saria. ANBOTO astekaria da sari emalea. Joseba Attardek jaien aurkezpenean jaso zuen saria. Ekitaldian azaldu zuenez, saria bi elorriarren arteko "elkarlanaren fruitua" da.

Bi egileak elorriarrek izanik, herriko kartela osatzea ez dela erraza izan aitortu dute. Aiert Zubigarairi dioenez, "norbere herriko kartela diseinatzea ez da erraza. Sormen prozesuan oso garrantzitsua da ideia on bat edukitzea eta kartela bera komunikatiboa izatea".



Joseba Attard eta Aiert Zubigarai, kartel irabazlea eskuetan dutela.

C/ Elizburu, 46 -48
Tel.: 94 682 10 79
Tel./Fax: 94 682 00 50
48230 ELORRIO
(Bizkaia)

ALBAÑILERIA
KURUTZONDO S.L.

berriozabaleta
• Iturgintza • Berokuntza
gremioen koordinaketa jose miguel acedo
Mug.: 609 381 887 • Tel./Faxa: 946 231 855
48230 Elorrio (Bizkaia) • berriozabaleta@yahoo.es

ONTRACK
946 58 46 73 BERRIO-OTXOA 18, ELORRIO
WWW.ONTRACKENGLISH.COM
2014 - 2015 Matrikula epea zabalik

tel.: 94 658 29 96
630 64 35 99
● Nizeto Urkizu 14. behea
● Elorrio (48230) Bizkaia

NUKIEO
leppindegie

Herriko ekoizleen lana izango da protagonista nagusia irailaren 7ko azokan

Iaz baino hamar erakusleku gutxiago egongo dira aurten, baina Elorrioko ekoizleenak zortzi gehiago

> AZOKA Itsaso Esteban Irailaren 7an, 10:00etatik 15:00etara egingo dute Elorrioko eta inguruko nekazarien, abeltzainen eta artisauen Ferixa Nausiko jaietako azoka. Elorrioko nekazarien ortuariak, herriko artisauen lanak eta abeltzainen ganadua bilduko dituzte, besteak beste, Elorrioko azoka egunean. Inguruko herri eta eskualdeetako ekoizleak ere izango diren arren, aurten nobedade inportantea da herriko ekoizle gehiagok parte hartuko dutela nekazaritza, artisautza eta abeltzaintza azokan. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, Elorrioko hemezortzi partaide inguru izango dira.

Irailaren 7an, Elorrioren euren postua ipintzeko eskaria egin duten guztientzako lekurik ez dute izan aurten, antolatzaileek azaldu dutenez. Izan ere, iaz baino hamar erakusleku gutxiago ipini ahalko dituzte: 60 izango dira guztira.

Aipaturiko leku eskasia hori kudeatzerakoan, ekoizle elorriarrei lehentasuna ematea erabaki dute azokaren antolatzaileek: herriko artisau eta nekazari berriek egiten duten lana herrikoideei erakusteko aukera izan dezaten hartu dute antolatzaileek erabaki hori.

60 erakusleku izango dira aurten. Horietatik hemezortzi Elorrioko ekoizleenak izango dira

Edozelan ere, Feriagunea zelan handitu aztertuko dutela esan dute antolatzaileek, datoen urteetan azokan parte hartzeko eskaria egiten duten ekoizle guztiak hartu ahal izateko.



Herriko eta inguruko 60 saltzailek ipiniko dituzte euren produktuak salgai.



Datozen urteetan parte hartu gura duten ekoizle guztiak hartzeko Feriagunea zelan handitu aztertuko dute.

ESTETIKA eta TATTOO ZENTROA

San Juan kalea, 23 behea 3
Tel.: 944 008 846 · ankeestetika@gmail.com

AUTOGAIN TALLERES San Agustin industriagunea 2. modulua
17. industria-nabea
48230 ELORRIO Bizkaia
Tel./Faxa: 946 056 732
Mug.: 679 174 367
autogain@hotmail.es

Certified **First**

- CZ ziurtagiridun lantegia
- Aseguru etxe garrantzitsuenen lankidea
- Karrozeria espresa
- Azterketarako gunea
- Ordezko autoa
- Konponketetan bermea
- Betiko pintura bermea
- Konponketen finantziazioa
- Gestirep konponketa sarea

TXAPA ETA PINTURAN ADITUAK

ORBELA
Lore eta opari denda

946 583 294
ELORRIXO

AZKARGI GARBIKETAK

Bulegoetako eta industrietako mantentze-lanak
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar


Goietan, 10 - 2 esk. - ELORRIO
Tel.: 946 820 991

Silvia Urrutxi Arkarazo

Tel.: **946 231 847**
Errekakale, 20, 2. A - Elorrio

JAIIAK!

2014ko ABUZTUA - IRAILA | Izurtza



Ondo pasatu
Izurtzako
jaietan!



IZURTZAKO JAIEN EGITARAUA

IRAILAK 5 BARIKUA

16:00 Frontenis txapelketa.

20:00 Txupinazoa eta triki-poteoa.

23:00 Kontzertuak eta DJak gaztelekuan.

IRAILAK 6 ZAPATUA

12:00 Bakailao lehiaketa (pil-pilean edo Bizkaiko erara).

13:30 Enkartelada.

14:30 Bakailaoen aurkezpena.

15:00 Herri bazkaria.

17:30 Bingoa.

IRAILAK 7 DOMEKA SANTA AGEDA

10:00 Kalejira Jaizale taldeagaz.

11:00 Meza Santa Ageda basilizan.

12:00 Mendigain dantza taldea.

13:00 Bertsolariak:
Iratxe Ibarra, Oihana Bartra eta Erika Lagoma.

14:30 Herri bazkaria.

16:00 Tor magoa.

17:00 Apustu herrikoia.

19:00 Lotxo taldea.

IRAILAK 8 ASTELEHENA ANDRA MARI

11:00 Meza Erdoitzako basilizan.

12:00 Mendigain dantza taldea.

12:30 Pilota partiduak.

16:00 Umeentzako jolasak.

17:30 Potxin eta Patxin pailazoak.

IRAILAK 12 BARIKUA

18:00 Frontenis txapelketa.

20:00 Antzerkia: Ilunpean, Karrikantoi taldea.

IRAILAK 13 ZAPATUA

16:30 XXIII. Mendi Bizikleta Martxa.

18:00 Igel txapelketa Azkonizagan.

19:00 Tortilla txapelketa.

20:30 Tortillen aurkezpena.

21:30 Herri afaria.

23:00 Luhartz / Mozorro gaua (gai librea).

IRAILAK 14 DOMEKA SANTO TOMAS

10:00 Kalejira Jaizale taldeagaz.

11:00 Meza Santo Tomas Basilizan

12:00 Mendigain Dantza Taldea

12:30 Bertsolariak: Miren Amuriza eta Gorka Lazkano

13:00 Pala partiduak

13:30 Gorriti eta abereak

14:00 Jubilatuen bazkaria

17:00 Mus txapelketa Argintxu Elkartean

RECUPERACIONES Y TROCEADOS, SAL

Elizalde auzoa, 47
Tel. / Faxe: 94 681 89 79
48213 IZURTZA
info@recytro.net
www.recytro.net



Foseco Española, S.A.
Elizalde auzoa, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)
Tel. 94 620 25 00 / Faxe. 94 620 37 73
115 Posta Kutxa - 48200 Durango (Bizkaia)

Galdaketa eta
siderurgiarako produktuak

Luhartzen erromeria, sukaldaritza lehiaketak eta umeen jolasak jaietan

Luhartzen erromeria irailaren 13an izango da, zapatu gauez



Udaletxeko balkoitik botatako txupinazoaren osteko triki-poteoko iazko irudia.

> EGITARUA Joseba Derteano Irailaren 5etik 14ra bitartean jaiak ospatuko dituzte Izurtzan. Udaletxean piztuko duten txapliuak emango die hasiera jaietara datorren barikuan; 20:00etan izango da hori, triki-poteo batek lagunduta. Jaien lehen egunean, kontzertuak eta DJ saioak izango dira gaztelekuan 23:00etatik aurrera.

Hurrengo eguna, irailaren 6a, sukaldarien eguna izango

da: 12:00etan bakailao lehiaketa hasiko dute. Parte-hartzaileek bakailaoa prestatzeko modu bi izango dituzte aukeran: pipil era zein Bizkaiko era. 14:30era arteko tartea izango dute platerak amaitzeko. Ondoren, herri bazkarian batuko dira. Irailaren 13an, berriz, tortilla lehiaketaren txanda izango da 19:00etan. Parte-hartzaileek ordu eta erdi izango dute tortilla aurkezteko; gero, herri afarian

batuko dira izurtzarrak. Egunari Luhartz taldearen erromeriak emango dio errematea. Gainera, gau hori Mozorro Gaua izango da, eta herritarrei mozorrotuta joateko gonbita egin diete; gaia libre da. Zapatu horretan arrakasta handia izan ohi duen mendiko bizikleta martxa ere izango da 16:30etik aurrera. Aurten 23. aldian izango du, eta Durangaldeko hainbat bizikletazale batzen dira bertan. Kirol ekitaldiei dagokienez, frontenis eta pilota partiduak ere izango dira jaietan, herriguneko pilotalekuan.

Irailaren 8an, aldiz, Erdoitza baselizan egingo den mezagaz hasiko dute eguna, eta, ondoren, dantza saioa izango da. Egun horretan, gaztetxoei begirako jolasak ere egingo dituzte arratsaldean, eta Potxin eta Patxin pailazoak euren abentura jostagarriekin helduko dira. Azkenik, antzerkizaleek Karrika taldearen *Ilunpean* lanagaz gozatu ahalko dute irailaren 12an.

Dantzak eta bertso saioak Santa Ageda eta Santo Tomas ermitetan

Jaietako domeka bietan herrigunean ez ezik, ermita bietan ere ez da jai girorik faltako

> JAIK J.D.

Herrigunean garatuko diren askotariko ekitaldiez gainera, irailaren 7an eta 14an, Santa Ageda eta Santo Tomas ermiten inguruan ere ez da jai girorik faltako, urteroko ohiturari eutsita. Goizetik eguerdira dantzarien eta bertsolarien saioekin gozatu ahalko da ermiten ondoko zelaian.

Irailaren 7an, Santa Ageda-jaioetako kalejira hasiko du Jaizalek 10:00etan. Musikak alaituta, 11:00ak bitartean egin beharko dute ermitarako bidea, orduan hasiko delako meza. Ostean, urtero legez, Mendigain dantza taldeak euskal dantzekin osatutako saioa eskainiko du. Ondoren, 13:00 inguruan, bertsolarien txanda izango da. Hiru bertsolari ariko dira zuzenean: Iratxe Ibarra, Oihana Bartra eta Erika Lagoma. Bertso saioa eta gero, herri bazkaria egingo dute han bertan. Inguruan ego-

kitutako mahaien eta etxetik eramandakoen inguruan aurten ere ehunka lagunek bazkalduko dute inguru natural horrek eskaintzen duen lasaitasunean. Baina irailaren 7ak beste ekin-tza batzuk ere aurreikusten ditu: Tor magoa eta Lotxo taldearen kontzertua, esaterako.

**Santa Agedan
Oihana Bartra, Iratxe
Ibarra eta Erika
Lagoma bertsolariak
ariko dira**

Irailaren 14an Santo Tomas ermitak hartuko du lekukoa. Jaizalaren kalejiraren, mezaren eta Mendigain taldeko dantzarien ostean, Miren Amuriza eta Gorka Lazkano bertsolarien saioa hasiko da 12:30ean.



Joan zen urtean Santa Ageda ermitaren inguruan egindako dantza saioa.





Luhartz taldea erromerien arloko talderik arrakastatsuenetakoa da.

**IZURTZAKO
HERRIKO TABERNA**

BEREZITASUNAK
Urdaiazpikoa - Solomo iberikoa
Gazta - Salamancako txorizoa

Tel.: 946 202 024 - IZURTZA



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com



GARBIKETA

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta Industri mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar

Goietia, 10 - 2 esk. - ELORRIO
Tel.: 946 820 991



LOREZAINNTZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085



ITURGINTZA

urtiaga
Proiektu eta Erreformak, S.L.
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU
AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solaguren kalea 3 · Tel.: 946 814 474 · Faxa: 946 215 374
Emaila: urtiaga@urtiaga.info · MATIENA-ABADIÑO

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 lurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

Kirola**Ostaiska Egia** | Eibar futbol taldeko medikua | Zornotza, 1974

Lehenengo, talde teknikitik pasatzen naiz, zer edo zer be-
rezia ote dagoen jakiteko, edo
jokalariren batek iritziren bat
WhatsApp-etik bidali ote duen
ezagutzeko, adibidez. Gero, eri-
zaindegira joaten naiz, nire ge-
lara. Jokalariekin lanean hasten
gara fisioterapeuta eta biok.
Batzuek, beharbada, bendajeak
behar dituzte, beste batek atzo
minduta amaitu zuen, eta begi-
rada bat bota behar zaio... Ho-
rren ostean, entrenatzen hasten
dira, eta beti gaude laguntzeko
prest. Entrenamendua amai-

“

*Lehen Mailara
igoko ginela esatea
asko zen, eta
begiratu azkenean
zer gertatu den”*

tu ondoren, euregaz egon eta
iritziak jasotzen ditugu. Beste
gauza batzuetaz ere berba egiten
dugu: andregaiaz zein umeaz,
adibidez [barrez]. Psikologo lan
horiek ere egin behar dira.

Lehen Mailako mediku emaku-
me bakarra zarela entzun dut.
Nire lagun bat Getafen dago, bai-
na beste mutil birekin. Ez dakit
seguru zein den bere lana. Medi-
ku zerbitzuko zuzendari lez, bai,
neska bakarra naiz.

“Familia txiki baten modukoa da Eibar, oso etxekoa den talde bat da”

Eibar futbol taldeko mediku zerbitzuko zuzendaria da Egia, eta Lehen Mailan estreinatu da aurtan

> FUTBOLA Markel Onaindia Historia egin, eta Lehen Mailan jokatzeko izarren artean. Hain maskulinoa den unibertso horretan, Zornotzako neska bat agertu da: Ostaiska Egia. Taldeko mediku zuzendaria da, eta herrian daukan kontsultagaz bateratzen du lana.

Zelan hasi zinen Eibar taldean mediku lanetan?
Hirugarren urtea izango da

aurtengoa. Gaizka Garitanogaz, Patxi Ferreiragaz eta Iñaki Lafuentegaz sartu nintzen taldean. Hamar urtez entrenatzaile ikastaroak ematen egon nintzen Faturan eta Kirolenen, eta Gaizka eta Alain Gandiaga prestatzaile fisikoa nire ikasleak izan ziren. Eurek deitu zidaten.

Bigarren B Mailan hasi eta gorantz etorri zarete.
Gora, gora... Jendeak esaten du Txapeldunen Ligara, UEFA-

ra... baina horrek jada ez dakit nik! [Barrez]. Baina, beno, iaz ere Lehen Mailara igoko ginela esatea asko zen, eta begira azkenean zer gertatu den. Mantentzea izango da helburu nagusia, eta sailkapenaren erdialdean geratzen bagara, askoz hobeto.

Zelan ikusten duzu aurtengo denboraldia?

Ilusioz. Lan gehiago egin behar dugu, baina, talde teknikoan denok ezagutzen dugunez el-


kar, errazagoa da lan egitea. Familia txiki baten modukoa da Eibar, oso etxekoa den talde bat da. Giro oso ona daukagu, eta hori funtsezkoa da. Gainera, Santiago Bernabeura edo Camp Noua joatea zein kameraren eta poliziaren zabalkunde guztia... Iaz Errege Kopan ere bizi izan genuen apur bat hori.

Zelakoa da zure egunerokoa?
10:00etan geratzen gara, baina beti nator apur bat lehenago.

Gertatu izan da, kazetariekin, adibidez, taldeetako emakumeak jokalariren neska-lagunekin nahastea.

Kanpora joan izan garenean beti gertatu zait. Baten Polizia etorri zitzaidan miaztera, eta identifikatzeko eskatu zidan: “Nor baiten neska-laguna zara?”. Eta nik: “Ez, taldekoa naiz!”. Beti begiratzen didate arraro. Askok esaten didate aurtan *en el candelero* egongo naizela; Jota Peleteirok ere gauza bera esan zidan denboraldi amaieran [barrez].

Durangaldeko Baserritarren Elkarte



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA





Amorebietak 4-0 galdu zuen Bilbao Athleticen aurka Lezamara egindako bisitan.

Amorebietak eta Kulturalak porrot banarekin hasi dute denboraldia

Talde biek mailari eusteko puntuak ahalik arinen batzea dute helburu nagusi

> FUTBOLA Joseba Derteano Amorebietak eta Durangoko Kulturalak porrot banarekin hasi dituzte futbol denboraldiak. Amorebieta ezinean aritu zen joan zen asteburuan, Lezaman, Bilbao Athleticen kontra: 4-0. Kulturalak etxean 0-1 galdu zuen Lagun Onaken aurka.

Bigarren B Mailan dabilen Amorebietak hamabi jokalaria berri ditu aurten. Entrenatzailea ere berria da; Josue Atelak (Derio, 1972) Iñaki Leniz ordezkatu du aulkian. Iaz denboraldi bikaina osatu zuen Somorrostrogaz Ohorezko Mailan. Beraz, aurpegi berri asko daude taldean eta, normala den moduan, taldea eraikitzen ari dira oraindik. "Egunetik egunera hobetzen joatea da helburua", Atelaren esanetan. "Mailako aurrekontu xumeenatarikoa dugu. Mailari eusteko puntuak ahalik arinen batzea da helburua, eta ondoren handik gorakoak".

Kulturala eta gaztetasuna Durangoko taldeak ez zuen espero moduan hasi Hirugarren Mailako denboraldia, baina

iaz hasitako filosofia indartzen jarraitzeko asmoa du: jokalaria gazteak eta ahal dela Durangaldekoak izatea da aurten fitxaketak egiteko erabili duten eredu. Horrela, talde oso gaztea osatu

du Kulturalak. Aurtengo helburu nagusia, Amorebietaren antzera, mailari eusteko adina puntu ahalik arinen batzea da. Domeka goizean Santutxuren aurka jokatu dute.

AMOREBIETAREN FITXAKETAK

Oier San Miguel	ATEZAINA, Gernika taldeetik.
Jon Ander Felipe	ATEZAINA, Bilbao Athleticetik, utzita.
Jon Ander Amilibia	ZENTRALA, Bilbao Athleticetik, utzita.
Xabi Etxebarria	ZENTRALA, talde barik zegoen.
Aitor Ortega	ESKUI HEGALEKOA, Arenasetik.
Jon Orbegozo	AURRELARIA, Barakaldotik.
Mikel Muniozguren	ERDILARIA, Laudiotik.
Ukerdi Corres	ERDILARIA, Santutxutik.
Alain Barron	EZKER HEGALEKOA, Logroñesetik.
Alberto Delgado	EZKER HEGALEKOA, Barakaldotik.
Joseba Arriaga	AURRELARIA, Barakaldotik.
Asier Goitia	AURRELARIA, Mirandesetik.

DURANGOKO KULTURALAREN FITXAKETAK

Ander Jauregi	AURRELARIA, Iurretakotik.
Ibon Barandiaran	ATEZAINA, Leioatik.
Unai Elguezaba	ZENTRALA, Baskoniatik.
Asier Etxebarria	ESKUI HEGALEKOA, Bermeotik.
Erik Aranburu	ERDILARIA, Bergaratik.
Jon Soraluze	HEGALEKOA, Apurtuartetik.
Jon Mikel Ramirez	ZENTRALA, Kultureko gazteen taldeetik.

Gaur Donostiako torneoko finala jokatu du Ibai Zabalak

> PILOTA

Gaur iluntzean Donostia Hiria Torneoko finala jokatu du Ibai Zabala berriztarrak Aimar Olaizolagaz batera; Juan Martinez de Irujo eta Jose Javier Zabaleta izango dituzte kontrario. Final horren ostean ez du atsedetik hartzeko asti handirik izango Zabala. Bihar bertan Lekeitioko San Antolin Torneoko finalerdia jokatu du. Aimar Olaizolagaz osatu du berriro bikotea, eta Mikel Urrutikoetxea eta Jon Ander Albisu izango ditu aurrez aurre.

Ibai Zabala goi mailako uda darama. Olaizolagaz batera Zarautz Hiria Torneoa irabazi zuen abuztuaren erdian. Oraintsu, Bilboko Aste Nagusia Torneon finalista izan da Juan Martinez de Irujogaz batera. Andoni Aretxabaleta ordezkatu du azken torneo horretan.

Elorrioko Debabarrenaren aurka, lagunarteko partiduan

> ARETO FUTBOLA

